

BIBLIOTEKA GJH-EKIN LA BIBLIOTECA CON LOS ODS

bibliotEK



2015ean, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) biltzar orokorrak 2030 Agenda onartu zuen, Garapen Jasangarriko 17 Helburuz (GJH) osatutako ibilbide orria. Pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plana da, eta bake unibertsala eta justiziarako sarbidea indartzeko asmoa ere badu, inor atzean utzi gabe.

Akordioa sinatu zuten 193 herrialdeek konpromisoa hartu dute 2030. urterako GJH horiek betetzeko.

Mundu osoko erakundeak eta pertsonak batu dira kontratu sozial eta global honetara, beren jarduera garapen iraunkorrarekiko ikuspegi sentikorrago batera moldatuz, edo plan eta jarduera berriak garatuz.

Horrela, **Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU)** "Garapen iraunkorren aldeko EHAgenda 2030 (2019-2025)" argitaratu du. Bertan, unibertsitateak 17 GJHetatik 12ri egindako ekarpena jasotzen da, eta beste bat gehitu da, 17+1 GJH, hizkuntza aniztasunarekiko eta kulturarekiko konpromisoa hartzen duena.

Gipuzkoako Campuseko Liburutegiak, orain arte jasangarritasunaren eta ingurumenaren alde egin duen ibilbideari jarraituz, ekarpen txiki bat egin nahi izan du iraunkortasunaren aldeko borroka horretan, eta liburutegiko erabiltzaileak kontzientziatu nahi izan ditu guztiok bizitzeko moduko planeta bat kontserbatzearen eta biziarritasun horren baldintzak hobetzearen garrantziaz.

Horretarako, GJHen txokoa sortu dugu. Bertan, alde batetik, **GJHekin lotutako liburutegiko edukien aukeraketa bat aurkituko duzu; eta, bestetik, Agenda 2030 egitasmoari buruzko albiste taula bat** ere egongo da, bereziki gure ingurunearekin zerikusia duten albisteak bilduko dituena.

En 2015, la Asamblea General de la ONU aprobó la Agenda 2030, una hoja de ruta compuesta de 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS). Se trata de un plan de acción a favor de las personas, el planeta y la prosperidad, que también tiene la intención de fortalecer la paz universal y el acceso a la justicia, sin dejar a nadie atrás.

Los 193 países firmantes se comprometen al cumplimiento de estos ODS para el año 2030.

Entidades y personas en todo el mundo se han adherido a este contrato social global adaptándose a una visión más sensible con el desarrollo sostenible o adoptando nuevos planes y actividades.

Así, la **Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)** publica la "EHAgenda 2030 por el desarrollo sostenible (2019-2025)" que recoge la contribución de la Universidad a 12 de los 17 ODS, y añade uno nuevo, el ODS 17+1, que vincula el compromiso con la diversidad lingüística y cultural.

La **Biblioteca del Campus de Gipuzkoa**, siguiendo con la trayectoria que ha mantenido hasta la actualidad en materia de sostenibilidad y mejora ambiental, ha querido hacer una pequeña contribución para concienciar a sus personas usuarias de la importancia de conservar un planeta habitable para todos y para todas, y de que las condiciones de esa habitabilidad mejoren.

Para ello hemos creado este rincón de los ODS en el que podrás encontrar, por un lado, una **selección de contenidos de la propia biblioteca relacionados con los ODS y, por otro, un tablón de noticias sobre la Agenda 2030**, especialmente aquéllas que tienen que ver con nuestro entorno.

bibliotEK

